LEKEITIOKO SANTI BROUARD UDAL KIROLDEGIKO MUSKULAZIO ARETOA HORNITU, INSTALATU ETA MANTENTZE-LANEN GAUZATZEA KONTRATATZEKO OINARRI TEKNIKOEN PLEGUA

AURKIBIDEA

1. Kontratuaren helburua 3

1.1 Kontratuaren xede diren ezaugarri orokorrak 3

2. Oinarrizko betebeharrak 4

3. Hornitu beharreko makinen inbentarioa 5

3.1 Makina bakoitzaren ezaugarri teknikoak 6

4. Bermea 10

5. Instalakuntzaren planoa 10

6. Balorazio irizpideak 10

6.1 Automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideak 10

6.2 Ebaluazio automatikoko irizpideak 11

6.2.1 Eskaintza ekonomikoa 11

6.2.2 Mantenua 11

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: Makinen zerrenda eta kopuruak 4

LEKEITIOKO SANTI BROUARD UDAL KIROLDEGIKO MUSKULAZIO ARETOA HORNITU, INSTALATU ETA MANTENTZE-LANEN GAUZATZEA KONTRATATZEKO OINARRI TEKNIKOEN PLEGUA

1. Kontratuaren helburua:

Plegu honen helburua da Lekeitioko Santi Brouard Udal kiroldegiko muskulazio aretoa hornitu, instalatu eta mantentze-lanen gauzatzea esleitzeko lehiaketa deialdiaren oinarri teknikoak arautzea.

1.1 Kontratuaren xede diren ezaugarri orokorrak:

Esan bezala Lekeitioko Udalak Santi Brouard kiroldegiko muskulazio aretoa berritu nahi du. Makina berriak jartzeaz gain, 5 urtez mantentze-lanak egiteko konpromezua hartu beharko da. Mantentze lanetan piezak ere sartuko dira.

Hornitu beharreko makinariari dagokionez, bi mota ezberdintzen dira: bat pisu gidatua eta bestea pisu librea.

Lehenengoak, makinek proposatutako mugimendu eszentriko eta kontzentrikoz gidatuta, ariketa analitikoen bidez, talde muskular isolatuen lana ahalbidetzen du. Horrela, posible da ariketaren exekuzio biomekanikoa zuzentzea, segurtasuna eta eraginkortasuna bermatuz. Ariketak makinak eskaintzen duen erresistentziaren bidez egiten dira, eta erresistentzia hori, normalean, pisu-plaken dorreetan oinarritzen da.

Bigarrenak, honako hauek barne hartzen ditu: bankuak, euskarriak, barrak eta pisu desberdinetako diskoak. Ariketak mekanikoki lagundu gabe egiten dira. Pisu librearekin egindako lanek posturen kontrol eta teknika handiagoa eskatzen dute. Horrek gorputzaren hainbat muskulu-kate aktibatuz, entrenamendu funtzionalagoa ahalbidetzen du. Pisu libreko elementuak jartzen diren gunean (30m) gomazko lurra jarri beharko da.

Makineria guztiak, hau da, pisu librekoak nahiz pisu gidatutakoak, plegu teknikoan eskatzen diren gutxieneko ezaugarriak bete behar dituzte. Betetzen ez dituzten makinak kanpoan geratuko dira.

Azkenik, enpresa esleipendunak une honetan Santi Brouard Udal kiroldegiko muskulazio aretoan dauden makinak kendu beharko ditu. Ekipamenduak kontratuaren arduradunarekin koordinatuta kenduko dira.

2. Oinarrizko betebeharrak:

Esan bezala, esleipendunak, lehenik eta behin, gaur egun Santi Brouard Udal kiroldegiko muskulazio aretoan dauden makinak kendu eta kirol koordinatzaileak adierazitako Lekeitioko beste Udal kirol instalakuntza batera eraman beharko ditu. Aprobetxatu ezin diren makinak erretiratu egin beharko dira.

Ondoren, elementu guztiak Santi Brouard Udal kiroldegiko muskulazio aretora eramateko eta bertan instalatzeko konpromisoa hartu beharko da. Udalak zehaztutako tokietan jarriko dira eta erabilera-baldintza egokietan daudela ziurtatu beharko da.

Makineria instalatu ostean, ekipamenduaren egoera egokia egiaztatu beharko da: bai funtzionamenduari dagokionez, bai kanpo-egoerari dagokionez, hau da, kolperik, urradurarik, etab. ez dagoela ziurtatu beharko da.

Horretaz aparte, hondakin-elementu guztiak (kartoizko kutxak, plastikoak…) kendu beharko dira eta baimendutako hondakin-kudeaketa sistemaren bidez tratatu beharko dira.

Entrega edo instalazioaren ondorioz, eraikinean edo haren edukian kalteren bat gertatzen bada, konpondu egin beharko da.

Bestalde, esleipendunak salmenta osteko zerbitzua zehaztu beharko du. Nahiz eta lantegi ofizialik ez izan, edozein motatako konponketak egiteko gaitasun operatiboa izan beharko du.

Material eta produktu guztiek indarrean dagoen araudia bete beharko dute. Ekipamenduek Espainiako eta Europako araudi osoa bete beharko dute, bereziki UNE arauei dagokiena: UNE 55014-1, UNE 55014-2, UNE EN 957-5, UNE EN 957-6, UNE EN 957-7, UNE EN 957-9, UNE EN 957-10; hau da, entrenamendurako aparatuen segurtasunari eta funtzionamenduari buruzko arauak. Ekipamendu-unitate guztiek erabilera segururako eta ohartarazteko seinaleak izan beharko dituzte.

Oro har, eskaintzen den ekipamenduak gutxienez 3.1 puntutan deskribatutako ezaugarri teknikoak bete beharko ditu. Muskulazio-ekipamenduak zailtasun- eta intentsitate-maila desberdinak eskaini behar ditu. Biomekaniko egokiak diren mugimendu gidatuak eta libreak ahalbidetu beharko ditu. Makinak berak orekatuak edo pertsonak (kable-makinak), eta gorputz-adarren mugimendu edota karga independentea egitea ahalbidetuz.

Azkenik, indar-makinak eta gainerako elementuak nahitaez bete beharreko ezaugarri hauekin hornituko dira: batetik, indar-makinaria guztiaren, bai pisu librearen bai pisu gidatuaren egituraren, kolorea beltza izango da: bestetik, makina guztiak pertsonalizatuta egon beharko dira Lekeitioko Udalaren irudi korporatiboarekin. Horretarako, enpresa esleipendunari identitate korporatiboaren eskuliburua bidaliko zaio, zehaztutako irudia zein makinatan eta non jarri behar den adieraziz. Irudia 2x2 cm-koa izango da.

3. Hornitu beharreko makinen inbentarioa:

Jarraian, hornitu beharreko material eta ekipamenduen zerrenda adierazten da.

Taula 1

Makinen zerrenda eta kopuruak

Artikulua	Kopurua	**MAKINAK eta MATERIALA**
1	1	Plaka-makina: lagundutako dominadak
2	1	Plaka-makina: erregulagarria den kablea
3	1	Plaka-makina: lunbarra
4	1	Plaka-makina: bular eta deltoidea
5	1	Plaka-makina: hankaren estentsioa (luzapena)
6	1	Plaka-makina: iskiotibialak. Femoral eserita.
7	1	Plaka-makina: hanka prentsa
8	1	Plaka-makina: sorbalda prentsa
9	1	Plaka-makina: trizeps luzapena
10	1	Plaka-makina: abdominal “crunch” eta zeiharra
11	1	Plaka-makina: abduktore-adduktore duala
12	1	Plaka bikoitzeko-makina: bularreko prentsa
13	1	Disko-makina: gluteoa

14	1	45 graduko bankua
15	3	Banku erregulagarri anitzak
16	1	Bizeps “scott” bankua
17	1	“Smith” makina edo “multi power” makina
18	1	“Half rack”
19	1	Bi gorputzeko “rack-a” osagarrietarako
20	1	Rack S180
21	1	TRX
22	1	Soka
23	2	Fitball-ak
24	2	Kettlebell-ak: 8kg
25	2	Kettlebell-ak: 10kg
26	2	Kettlebell-ak: 12kg
27	2	Kettlebell-ak: 16kg
28	4	Diskoak: 1,25 kg
29	6	Diskoak: 2,5 kg
30	8	Diskoak: 5 kg
31	16	Diskoak: 10 kg
32	8	Diskoak: 25 kg
33	2	20 kg-ko barra olinpikoak
34	1	15 kg-ko barra olinpikoak

Iturria: elaborazio propioa

3.1 Makina bakoitzaren ezaugarri teknikoak:

Makina bakoitzak gutxieneko ezaugarri batzuk bete beharko ditu. Jarraian, landu nahi diren gihartaldeen helburuak modu orokorrean azaltzen dira. Makinek ezin izango dute zehazten den gihartaldearen lana ahalbidetzen ez duen beste helburu bat izan. Makina guztiek azalpen-piktogramak izan beharko dituzte.

- Plaka-makina. Lagundutako dominadak:
    - Fondotan eta dominadetan laguntzea.
    - Dominadetarako 3 euste-posizio izatea.

- Oin-euskarri tolesgarria izatea, lagundutako edo laguntzarik gabeko fondoak/dominadak egiteko aukera izateko.

- Plaka-makina. Erregulagarria den kablea:
  - 2:1 polea-harremana, erresistentzia handiagoa lortzeko.
  - Eskulekuak 180º biratzea.
  - Lurretik 18 cm-tik 193 cm-ra arte erregulagarria izatea.

- Plaka-makina. Lunbarra:
  - Lunbar muskulua eta espinalak lantzeko makina izatea.
  - Hasierako mekanismoa erregulagarria izatea 5 posiziorekin, mugimendua norbere anplitude edo mugapen fisikoetara egokitzeko.
  - Hankentzako bi posizio ez-labaingarri, erabiltzaileen neurri ezberdinetara egokitu beharko dira.
  - Gerrialdeko euskarriak erabiltzaileei biraketa-ardatzarekiko posizio egokia aurkitzen laguntzeko aukera ematea.

- Plaka-makina. Bular eta deltoidea:
  - Bi ariketa desberdin eskaintzen dituen makina duala izatea, bular-kontraktorea eta atzeko deltoidea.
  - Lan konbergentea izatea bular-kontraktorean eta dibergentea atzeko deltoidean.
  - Makinaren heldulekuak biratzea, besaurrearen luzerara eta mugimenduaren ibilbidera egokitzeko.
  - Ariketa bakoitzean 7 angelu desberdinetan lan egiteko aukera izatea.
  - Heldulekuen posizioak optimizatu behar dira ariketen artean eserlekua berriro egokitzeko beharra ez izateko.
  - Eserlekuak erregulagarriak izatea erabiltzaile bakoitzak posizio egokiena lortzeko.

- Plaka-makina. Hankaren (koadrizeps) estentsioa (luzapena):
  - Gutxienez 5 lan-posizio ezberdin izateko aukera ematea.
  - Pisuen zutabea 135 kg-koa izan beharko da.

- Plaka-makina. Iskiotibialak. Femoral eserita:
  - Hanken atzeko aldeko muskulu flexoreak lantzeko aukera ematea.
  - Doikuntza-posizioetarako 5 posizio izatea.

- Pisuen zutabea 95 kg-koa izatea.

- Plaka-makina. Hanka prentsa:
  - Plataforma finkoa eta eserleku mugikorra izatea.
  - Pisuen zutabea 195 kg-koa izatea.

- Plaka-makina. Sorbalda prentsa:
  - Deltoidearen inguruko eremua lantzeko aukera ematea.
  - 2 euste-mota izatea.
  - Eserleku erregulagarria izatea.
  - Pisuen zutabea 90 kg-koa izatea.

- Plaka-makina. Trizeps luzapena:
  - Erabiltzaileen neurrira egokitzeko helduleku birakariak izatea.
  - Pisuen zutabea 95 kg-koa izatea.

- Plaka-makina. Abdominal "crunch" eta zeiharra:
  - Bi lan mota egiteko aukera izatea: "crunch frontalak" edo alboetakoak (bi aldeetara), palanka bakar bat sakatuz, eserlekua biratuz, aukeratu ahal izatea bata edo bestea. "Crunch frontalak" hautatuz gero, goiko eta beheko abdominalen lana nabarmentzea. Alboetakoak aukeratuz gero, garrantzia handiagoa ematea abdominal oblikuoari.
  - Ariketa egiterakoan enborra jaistea eta gorputzaren beheko aldea igotzea aldi berean.
  - Bizkarraldean eta gerrialdean euskarria izatea eta helduleku luzeak izatea erabiltzaile guztietara egokitzeko.
  - Eserlekuaren altuera erregulagarria izatea eta oinak finkatzeko birakariak edukitzea erabiltzaile guztietara egokitzeko.
  - Pisuen zutabea 75 kg-koa izatea.

- Plaka-makina. Abduktore-adduktore duala:
  - Doikuntza-mekanismoak erabiltzaileari izterreko barnealdea zein kanpoaldea lantzeko aukera ematea.
  - Dorreak pribatutasuna eskaintzea erabileran zehar.
  - Ezarpen guztiak eserita egonik egin ahal izatea.
  - Pisuen zutabea 71 kg-koa izatea.

- Plaka bikoitzeko-makina. Bularreko prentsa:
    - Mugimendua bularraldeko altueratik hastea.
    - Eskulekua horizontala izatea, banku-prentsa tradizionala simulatzen duena.
    - Mugimendu isolaterala, indarra modu orekatuan garatzeko eta muskulatura ezberdinen estimulatzea ahalbidetzeko.
    - Bizkarralde inklinatua sarbide errazagoa eta egonkorragoa eskaintzeko.
    - Plaka-orga bikoitza izatea.
    - Eserlekua altueran erregulagarria izatea.
    - Pisuen zutabe bikoitza 75 kg-koa izatea.

- Disko-makina. Gluteoa:
    - Atzeko parteko potentzia lantzeko mugimendu funtzionala ahalbidetzea. Erabiltzaileek mankuernadun bankurik edo barrarik behar ez izatea mugimendua egiteko.
    - Sarrera eta irteera errazak eskaintzea eta bi aldetatik kargatzeko eta erresistentziak aldatzeko aukera ematea.
    - Bizkarraldea biribila izatea erabilera errazteko eta mugimendu-tartea handitzeko. Hanketarako plataforma handia eta 15º-ko angelukoa izatea egonkortasun handiagoa emateko.
    - Lau barrak biltegiratze espazio zabala eskaintzea.
    - Gehieneko entrenamendu gaitasuna 163 kg-koa izatea.
    - Biltegiratze-gaitasuna honako hau izatea: 2-20kg bitarteko diskoak barra bakoitzeko.

- Rack S180:
    - Osagarri ezberdinak jartzeko aukera ematen duen rack-a.
    - Baldak izatea, “power pibot”-a, soka, TRX-a, barrak… jartzeko aukera izatea.

Lizitatzaileek eskaintzarekin batera hornitutako ekipamendu bakoitzari dagokion ezaugarri teknikoen fitxa aurkeztu beharko dute. UNE arauen dokumentua ere aurkeztu beharko dute (arau horiek betetzea).

Makina bakoitzaren fitxa teknikoek eskatutako baldintzak ez direla betetzen ziurtatzen badute, eskaintza horiek kanpoan geratuko dira.

4. Bermea:

Bermea 5 urtekoa izango da hornidura formalki jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Bermean sartutako irizpideak honako hauek dira: makinei egin beharreko konponketa-lanak, desplazamenduak eta konponketetarako beharrezko piezak.

Urtean gutxienez mantentze prebentiborako doako 6 bisita egin beharko dira. Bestalde, matxuraren bat egonez gero, gehieneko erantzun-denbora 48 ordukoa izan beharko da eta ebazteko gehieneko denbora 4 egun baliodunekoa.

Konponketak bi aste baino gehiago luzatzen badira, ordezko ekipamendua ekarri beharko da. Horien desplazamendua ere barne. Osagai elektroniko, mekaniko eta tapizatu guztiak ere barne hartzen dira; beti ere, matxura erabiltzaileen erabilera desegoki batengatik izan ez baldin bada.

5. Instalakuntzaren planoa:

Esleipena egin ondoren, esleipendunari Santi Brouard Udal kiroldegiko planoa bidaliko zaio eta eskainitako makinaria non kokatu behar den azalduko zaio.

Egungo makinak kendu eta kirol ekipamendu berria instalatzeko epea gehienez ere LAU HILABETEKOA izango da, esleipen jakinarazpena egiten den egunetik kontatzen hasita.

6. Balorazio irizpideak:

Kontratu esleipenerako oinarri izango diren eskaintzen balorazio irizpideak honako hauek izango dira:

6.1 Automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideak:

Plegu tekniko honetako 3.1 puntuan eskatzen diren gutxieneko ezaugarriak ez dituzten makinak kanpoan geratuko dira.

6.2 Ebaluazio automatikoko irizpideak:

Gehienez 100 puntu honela banatuta:

6.2.1 **Eskaintza ekonomikoa** (85 puntu):

Puntuaziorik handiena emango zaio eskaintza ekonomikoenari. Gainontzeko proposamenen puntuazioa formula honetatik ateratzen da: eskaintza ekonomikorik baxuena zati baloratzen den lizitatzailearen eskaintza, bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Aurkeztutako eskaintzen zenbatekoa baloratzeko modua formularen bitartez izango da:

Pl= Ob/Ol x 85

Pl: lizitatzailearen puntuazioa
Ob: eskaintzarik txikiena
Ol: lizitatzailearen eskaintza

6.2.2 **Mantenua** (15 puntu):

15 puntuak honela banatuko dira:

- Matxurei erantzuteko ordutegia eta bidea (giza baliabideak/teknikoak) (4 puntu).
    - Astelehenetik ostiralera 10 orduko arreta presentziala edo urrutikoa (puntu 1).
      10 ordutik beherako ordu bakoitzeko 0,25 puntu gutxiago.
    - Asteburu eta jaiegunetarako arreta bide aktiboa (gutxienez telefono bidezkoa) (puntu 1).
      Asteburu eta jaiegunetarako arretarik gabe (0 puntu).
    - Gorabeherak jakinarazteko hainbat kanal aktibo (telefonoa, posta elektronikoa eta plataforma) (puntu 1).
      2 kanal 0,5 puntu eta kanal bakarra 0,25 puntu.
    - Kontratuari esklusiboki esleitutako teknikari bat, prestakuntza espezifiko frogatua duena (puntu 1).
      Prestakuntza espezifikorik gabe 0,5 puntu.

- Gorabeherak eta konponbideak kontrolatzea (3 puntu).

- Gorabehera bakoitzaren egoera ikusteko trazabilitatea duen erregistro digitala eta sarbidea (puntu 1).
  Eskuzko sistema edo trazabilitaterik gabe 0,5 puntu.
- Gorabeherak kudeatzeko urratsez urratseko dokumentatutako protokoloa (hautematea, azterketa, konponbidea, itxiera) (puntu 1).
  Protokolo orokorra 0,5 puntu.
- Azterketa eta hobekuntza-proposamenak jasotzen dituzten aldizkako txostenak (puntu 1).
  Analisirik gabeko txostenak 0,5 puntu.

- Gorabeherei erantzuteko denbora (puntu 1):
  - 4 lanegun baino gehiago: 0 puntu.
  - Egunetik egunera 0,5 puntu gutxiago (gehienez puntu bat 48 orduko).

- Osagaiak ordezkatzea (puntu 1):
  - 6 lanegun baino gehiago: 0 puntu.
  - Egunetik egunera 0,25 puntu gutxiago (gehienez puntu bat 48 orduko).

- Urteroko aldizkako 6 berrikuspenak baino berrikuspen gehiago: puntu 1 berrikuspen bakoitzeko (gehienez 6 puntu).

Lekeition, sinadura digitalaren egunean

LEIRE FERNANDEZ BEITIA - 44344990R

Firmado digitalmente por LEIRE FERNANDEZ BEITIA - 44344990R
Fecha: 2025.06.03 14:20:35 +02'00'

Kirol koordinatzailea

Izp.: Leire Fernandez Beitia